

Zaharrak berri

Antton Izagirre

Urte zaharra itxi eta berria abiatzearekin asmo eta desio berriak jarri ditugu egutegian. Nonbait urtero geure buruari eta gizataldeari eginarazten diogu ohiko ariketa. Maila pertsonalean eragindakoa –intimitatean aitortzen ditugunak– alde batera utzita, baditugu urte berriarekin batera euskal gizartea aurrerabidean jartzeko desio eta premia bereziak.

Errealitateari aurrez aurre so eginez, belaunaldi berrientzat lanaldi eta bizibide duina izateko eskubidea eskatzea ez da inolaz ere ameskeria, etorkizuneko gizartea era sano, integratu eta parte hartzailean garatzeko ezinbesteko eskaria baizik. Hori ezean gure gizartea mai-

lakatu, zatitu eta etsipenean erortzeko arriskuan legoke.

Nola eragin politikan, nola animatu gazteak politikan aktiboki integratzera, etorkizunik gabeko gizarte batean irautera kondenaturik diren, beste aurreikuspenik gabe bizitzera kondenaturik diren ustea gailentzen denean?

Belaunaldi berriek eraiki behar duten gizarte berri horretan sinetsi behar dute. Nola bestela parte izan eta partaide sentiarazi? Lanik gabe edo zabor-kontratuek eskainitako etorkizunaren esklabo denak izan al lezake gizarte honetaz apustu egiteko motibo eta desiorik?

Urte berriarekin konpondu gabeko arazo politiko zaharrak geratu zaizkigu:

Kataluniako alderdi abertzaleen arteko konpenezina, Estatu mailako gobernagarritasun eza, Euskal Herriko indar politikoaren korrelazio berriak, presoaren sakabaketa eta mendekua, gatazkaren blokeoa...

Hala ere, etorkizuneko euskal gizarteak prekarietatea, langabezia, pobrezia, duintasunik gabeko bizibideak gainditzea erronkatzat hartu behar ditu. Gabeki eta ezintasun sozial horiek gainditze bidean jartzen dituen belaunaldi berriak izango du kementa gainerako auzi politikoei eutsi eta aurre egiteko, baina gizatasuna ukatzen zaion gizakia ez da deus; borroka egin eta politikan konfiantza galtzeko arrisku latza du. •

Ispiluaren aurrean

Andoni Egia

Kataluniako prozesuak dituen elementu interesgarrien artean interesgarriena, nire ustez, agente ekonomiko, politiko eta sozial guztien jarrerak, diskurtsoak eta estrategiak azaleratu dituela da, eta ez bakarrik agerikoak direnak, baizik eta –eta batez ere–, mozkorrak gaudenean bezala, barru-barruan daramagun hori bistaratu duela.

Esan beharra daukat zazpi urte igaro ditudala Katalunian. Kostata izan bada ere, politika kataluniarrak dauzkan ardatz eta erpin ugari eta anitzak ikusarazi dizkirate, uler nitzan saiaturaz. Horretarako egin behar izan nuen lehenengo pausua, gogorrena, euskaldun izateak ematen digun superioritate politikotik aldentu, mundua ulertu eta esplikatzeko erabiltzen ditugun betaurrekoak apurtu,

eta hain urri daukagun sakoneko umiltasun ariketa bat egitea izan zen. Euskal gatazkak sortu duen “Gu” eta “Haiek” sinple hori alde batera utzi, eta “Gu” eta “Haiek” berri bat eraiki; zabala, anitza, konplexua. Horrela, prozesua modu oso pertsonalean bizi izan dut, nire herria omen den honen erraiak ikusteko aukera eman didala ohartu naiz. Eta galderak sortu zaizkit, bata bestearen atzean: «Nor gara gu? Zer dakigu guk? Zertan ari gara gu?».

Suminduta nago, triste, haserre. Eskerrak euskaraz inork gutxi dakien, eta eskerrak Euskal Herrian bakarrik dakigun. Eskerrak gure kide katalanek ez duten ulertzen eta guk esandakoak hemen bakarrik gelditzen diren, lotsagarria baita, etsigarria. Gogorarazi nahiko nuke Euskal Herriaren askapenerako burutu diren estrategia eta ekintza guztiek porrot egin

dutela nabarmen: bakegintzan, esperpentoa; arlo politikoan, blokeoa; eta, eremu sozialean, neutralizazioa. Iruditzen zait, onartzen hasi beharko genukeela frankismo amaieratik egin ditugun irakurketa politiko guztiak okerrak izan direla, eta orain arteko akats guztiek gauden tokira eramane gaituztela, gure kabuz eta gure erruz. Horrela bada, mesedez, utz diezaiegun beraiei prozesua beste optika, beste estrategia eta beste aliantza batzuekin entseatzen.

Arren, isil gaitzezen, izan gaitzezen umilagoak, izan gaitzezen solidarioak. Elkartasun internazionalista hori baita, subjektu bakoitzaren estrategia eta praktikak ezbaian jarri gabe, behar den guztia eskaintzea, ondoan egotea, gainontzekoen erasoaren aurrean babesa ematea. Eta azkenik, ikas dezagun, premia larria dugu-eta. •